

Herri-galdeketa

Herritarrei Udalaren eskumenekoak diren eta tokiko izaera duten gaien inguruan galdetu ahal izango zaie, horiek auzo-erkidegoaren intereserako bereziki garrantzitsuak direnean, toki-araubidearen oinarritzko legerian galarazten diren eremuen ingurukoak salbu.

Arau honetan araututako ekimenek herri-galdeketarako proposamen bat gainera dezakete.

Herri-galdeketa egiteko, Udalbatzarrak gehiengo oso bidez adostu eta behar bezala izapidetu beharko du, 7/1985 Legearen 71. artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Salbuespenetan, eta galdeketa-prozesuaren xede den gaiaren arabera, herri-galdeketa horietan parte hartu ahal izango dute udalerrian bizi diren atzerritarrek eta bozketa hasten den unean 16 urte beteta dituzten adin txikikoek. Kasu horretan, hautesleen errolda biztanleen udal-errondarekin osatuko da, eta udaletxeko Idazkaritzaren eskumena izango da egokitzapen hori egitea.

Galdeketak lotesleak izango dira, hura osorik edo partzialki egitea galarazten duen lege-araurik ez badago.

Erreferenduma ez diren herri-galdeketak

Udalerrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarrei erreferendum-izaerarik ez duten eta lotesleak ez diren galdeketak egin ahal izango zaizkie eragiten dizkieten eta udal-eskumenekoak diren interes publikoko gaien inguruan.

Ez da herri-galdeketarik egingo pertsonen duintasuna eta horien funtsezko eskubideak kaltetu edo zalantzan jar ditzaketen gaien inguruan, ezta tokiko Ogasunaren diru-sarrerara publikoei edo Udalaren finantza-iraunkortasunari eragiten dieten gaien inguruan ere.

Erreferenduma ez diren herri-galdeketak erakundeen edo herritarren ekimen bidez egin ahal izango dira, kasu bakoitzean ezartzen den moduan eta baldintzetan. Udalak behar bezala bermatu beharko du herri-galdeketarako prozesuak inpartzialtasunez eta gardentasunez garatzen direla, eta planteamenduak azaltzeko orduan zuzentasuna mantentzen dela. Era berean, herritarrei egindako galdera edo galderak argiak eta zehatzak direla bermatu beharko du.

Herritarren Partaidetzarako Arau honen garapenean, galdeketak sustatzeko eta garatzeko prozedura eta horiek bermatzeko sistema garapen-arau zehatz baten bidez arautuko dira, Udalbatzarrak onartu beharko duen araua.

Galdeketa sektorialak edo lurralde-eremu mugatukoak

Udalak herritarren zati bati bakarrik eragiten dieten galdeketak egin ahal izango ditu, jorratu beharreko gai sektorialaren edo, hala badagokio, horiek gauzatuko diren lurralde-eremuaren arabera.

Problematika jakin baten inguruan egiten den eta herritarren zati bati edo udalerrian bizi direnen zati bati bakarrik eragiten dieten galdeketak dira galdeketa sektorialak.

Udalerriaren zati batean egiten den galdeketari deitzen zaio lurralde-galdeketa, hura auzo, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko erakunde nahiz udal-barruti batean egin.

Alkateari dagokio galdeketa horien deialdia egitea, Udalbatzarrak gehiengo osoz onartu ondoren.

Jorratu beharreko gaiaren arabera, udalerrian erroldatuta dauden atzerritarrek eta 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute galdeketa horietan.

Edonola ere, prozesu horietan aniztasun politikoaren eta inpartzialtasunaren printzipioak errespetatzen direla bermatu beharko da, baita boto-eskubideak berdintasun-baldintzetan zaintzen direla ere. Alkatzaren pertsona titularrak arduratu beharko du printzipio horiek guztiz errespetatzen direla bermatzeaz eta prozesu horiek modu egokian gauzatzeko bitarteko guztiak jartzeaz.

Garrantzi bereziko politika publikoei edo erabaki publikoei buruzko herritarrentzako tokiko galdeketa irekiak

Galdeketa horiek bozketa bidez egingo dira, baina botoak elkarren segidako edo txandakako hamabost egunetan zehar proiektatu ahal izango dira gehienez ere, Udalbatzarrak hartutako akordio arrazoituaren arabera.

Jorratu beharreko gaiaren arabera, udalerrian erroldatuta dauden atzerritarrek eta 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute galdeketa horietan.

Kontsultaren xede den gaia udalerrriaren eskumeneko politika publikoetara, erabakietara edo gaietara mugatuko da. Ezin izango da galdeketarik egin diru-sarrera publikoekin lotutako alderdien inguruan, horiek tokiko zergekin lotutako Udalaren eskumeneko alderdiei buruzkoak direnean salbu.

Galdeketa horiek informazio publikoko aldietan planteatu ahal izango dira, ordenantzak eta araudiak onartzeko prozesuetan.

Kasuan kasuko udal-ordenantzen edo araudien bitartez edo, hala badagokio, Udalbatzarraren akordio bidez, prozesuaren bozketan, zenbaketan eta kontrolean eragiten duten prozedurazko alderdiak ezarriko dira, baita izaera teknikokoak ere.

Galdeketen emaitzek ez dute, inola ere, izaera loteslerik izango tokiko gobernuarentzat. Dena den, azken erabakia galdeketa irekiko emaitzekin bat etorriko ez balitz, berariaz arrazoitu beharko dira akordio hori justifikatzen duten arrazoiak.

Entzunaldi publikorako eskubidea

Entzunaldi publikoa deitzen zaio udal-ordezkariek eta herritarrek egun jakin batean egiten duten topaketari. Herritarrei jarduera edo jarduketa-programa bereziki esanguratsuen inguruko informazioa ematea eta horien proposamenak jasotzea da haren xedea.

Entzunaldi publikoak alkatzak deitzen ditu, norbere ekimen bidez edo Udalbatzarra osatzen duten kideen gehiengoak hala eskatzen duenean. Entzunaldia eskatu duten pertsonak, erakundeak eta elkarteak behar bezala arrazoituta aurkeztu beharko dute idazkia Udal Erregistroan, eta jorratu beharreko gaiari buruzko memoria bat eta jasotako sinadurak gehitu beharko dituzte, pertsona sinatzaileak identifikatzeaz gain.

Dokumentazioa jaso ondoren, Alkatetzak entzunaldi publikoaren deialdia egiten du, eta hura hurrengo 30 egunetan egin behar da. Deialdiaren eta entzunaldiaren artean 15 egun naturaleko epea utzi behar da.

Herritarren galde-eskeak egiteko txanda

Udalbatzarreko gai-zerrenda amaitzean, galde-eskeak egiteko txanda bat irekiko da herritarrentzat. Txanda hori Lasarte-Oriako Udal Araudi Organikoak araututako modu berean arautuko da.